Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE RELACIONES LABORALES Y TRABAJO SOCIAL

# EL ITINERARIO DE FORMACIÓN DUAL EN EL GRADO DE RELACIONES LABORALES Y RECURSOS HUMANOS

## El Grado en Relaciones Laborales y Recursos Humanos en la UPV/EHU

El **Grado en Relaciones Laborales y Recursos Humanos** proporciona conocimientos y competencias dirigidas al:

- Asesoramiento laboral como Graduados Sociales
- Dirección y gestión de recursos humanos
- Gestión, mediación e intervención en el mercado de trabajo: agentes de empleo y desarrollo local
- Prevención de riesgos laborales
- Acceso a las Administraciones Públicas
- Auditoría sociolaboral
- Enseñanza

Estas salidas profesionales vienen recogidas el libro blanco de **Título de Grado de Ciencias Laborales y Recursos Humanos** (ANECA, 2005).

## La Formación Dual




El objetivo general de la alternancia es la profesionalización y la inserción en un entorno socio-económico del alumnado universitario.

En nuestro caso, respondiendo a demandas empresariales, queremos integrar la adquisición de competencias en la empresa con las adquiridas en la academia (Universidad), innovando el sistema de formación tradicional. Esto es, ser capaces de mejorar el proceso de enseñanza-aprendizaje del estudiante, con un acompañamiento individualizado en la empresa y un seguimiento de tutores

Entre las **ventajas** del modelo Dual cabe destacar que las empresas involucradas participarán en el diseño del perfil competencial de los estudiantes, así como en el proceso de selección y de formación. Además, al convertirse en una "empresa formadora" todas las actividades relacionadas con este proceso se pueden incorporar a la estrategia de responsabilidad social corporativa.

## El itinerario de Formación Dual en el Grado

**¿En qué consiste?**

Se trata de un **nuevo itinerario** formativo del Grado en RRLL y RRHH. Se caracteriza porque la optatividad íntegra de la titulación (**todo el 4º curso) se desarrolla en la empresa**. Su finalidad es la de conseguir una mayor articulación entre la actividad académica y las necesidades de la empresa.

Supone para el alumnado realizar la estancia en una empresa (48 créditos). Además, el/la alumno/a deberá realizar y presentar un trabajo de fin de grado vinculado a su estancia en la empresa (6 créditos). Por lo tanto, el itinerario dual supone una estancia en la empresa de **1.200 horas.**

## ITINERARIO DUAL

48 CRÉDITOS DE ESTANCIAS EN EMPRESAS

6 CRÉDITOS DE TFG

### ¿Cuál es la duración de la estancia en la empresa?

El/la alumno/a colaborará con la empresa durante el período lectivo académico (**septiembre hasta Junio** del año siguiente), siendo su dedicación a las actividades de la empresa de **6 horas diarias** en el **calendario laboral de la empresa.**

### ¿Cuáles son los contenidos de la formación dual?

La actividad efectuada por el alumnado en la empresa deberá contribuir al desarrollo de las competencias de la titulación establecidas en el Plan de Estudios. Se concretará en un **Plan de Formación** acordado entre la empresa y la universidad. El alumnado también efectuará el Trabajo Fin de Grado en el marco del itinerario dual.

### ¿Cómo se efectúa la selección del alumnado?

La Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social efectuará una convocatoria anual entre el alumnado que tenga superadas todas las asignaturas de los tres primeros años y quiere cursar este itinerario formativo. Las empresas efectuarán propuestas de estancias para el alumnado en itinerario dual a la facultad. Estas propuestas se darán a conocer al alumnado para que presente sus candidaturas a las estancias. **Las empresas podrán seleccionar entre las candidaturas presentadas por el alumnado a su propuesta estancia.**

### ¿Cómo se materializa la relación entre la empresa, la universidad y el alumnado?

La universidad establecerá un convenio marco de colaboración con la empresa que contemple la realización de estudios duales. Asimismo, la relación entre la empresa y el/la alumno/a se establece mediante un contrato laboral o a través de un convenio de prácticas con remuneración y seguridad social. Su retribución será, al menos, equivalente a la parte proporcional al tiempo de estancia en la empresa respecto del Salario Mínimo Interprofesional.

### ¿Cómo se realiza la evaluación de los aprendizajes del alumnado?

El/la tutor/a académico/a de la Universidad, se reunirá con el/la instructor/a de la empresa **dos veces** (enero y junio) en la sede de la empresa para evaluar el grado de cumplimiento de los objetivos de aprendizaje previstos en el Plan de Formación.

### ¿Cómo puedes efectuar una propuesta de estancia en tu empresa?

Dirigiéndole a la Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social:
Ángel Elías (Decano) , teléfono 946013092, Correo electrónico: angel.elias@ehu.eus
Isabel Vázquez (Vicedecana de Prácticas), teléfono 946013096, email: isabel.vazquez@ehu.eus

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE RELACIONES LABORALES Y TRABAJO SOCIAL

# IBILBIDE DUALA UPV/EHUko LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUAN

## UPV/EHUko Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

**Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduak** honako hauetan jarduteko jakintzak eta gaitasunak eskaintzen ditu:

- Gizarte graduatu gisa lan aholkularitza eskaintzea
- Giza baliabideak zuzentzea eta kudeatzea
- Lan merkatuan kudeaketa, bitartekaritza eta esku hartze lanak egitea: enplegu eta toki garapenerako eragileak
- Laneko arriskuak prebenitzea
- Administrazio Publikoetan aritzea
- auditoretza soziolaborala egitea
- Irakaskuntza

Lan irteera hauek **Laneko Zientzia eta Giza Baliabideetako Gradu Tituluaren** liburu zuriak biltzen ditu (**ANECA, 2005**).

## Prestakuntza Duala

Alternantziaren helburu orokorra unibertsitateko ikasleak profesionalizatzea eta ingurune sozioekonomiko batean txertatzea da.

Gure kasuan, enpresen eskaerei erantzunez, enpresan lortutako gaitasunak eta maila akademikoan (Unibertsitatea) lortutakoak uztartu nahi ditugu, prestakuntza sistema tradizionala berrituz. Hots, gai izatea ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko, enpresan banaka lagunduz eta tutore eskarmentudunekin jarraipenak eginez.




Eredu dualaren **abantailen** artean, azpimarratzekoa da sartuta dauden enpresek ikasleen gaitasun profilaren diseinuan parte hartuko dutela, baita hautaketa eta prestakuntza prozesuan ere. Gainera, "enpresa prestatzaile" bihurtuz, prozesu horrekin loturiko jarduera guztiak enpresaren gizarte erantzukizuneko estrategian sar daitezke.

## Graduko Prestakuntza dualeko ibilbidea

**Zertan datza?**

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren prestakuntza **ibilbide berri** bat da. Ezaugarri nagusi du titulu osoaren hautazko irakasgai guztiak **(4. ikasturte osoa) enpresan egiten direla**. Helburua da artikulazio handiago bat lortzea jarduera akademikoaren eta enpresen premien artean.

Ikasleei enpresa batean egonaldia egiteko aukera eskaintzen die (48 kreditu). Gainera, ikasleek Gradu Amaierako Lana egin eta aurkeztu beharko dute, enpresako egonaldiarekin lotuta (6 kreditu). Horrenbestez, ibilbide dualak enpresan **1.200 orduko** egonaldia egitea eskatzen du.

## IBILBIDE DUALA

| 48 KREDITU ENPRESETAN EGINIKO EGONALDIEN BITARTEZ | 6 KREDITU GRALaren BITARTEZ |
|---|---|

### Zenbat irauten du enpresako egonaldiak?

Ikasleak ikasturteak iraun bitartean jardungo du enpresan (**irailetik hurrengo urteko ekainera**) eta **egunean 6 ordu** emango ditu bertan, **enpresaren lan egutegia** betez.

### Zer eduki biltzen ditu prestakuntza dualak?

Ikasleak enpresan gauzatutako lanak ikasketa planean ezarritako tituluaren gaitasunak garatzen lagundu beharko du. Horretarako, aldez aurretik **Prestakuntza Plan** bat ezarriko da enpresaren eta unibertsitatearen artean. Ikasleek Gradu Amaierako lana egingo dute ibilbide dualaren esparruan.

### Nola hautatzen dira ikasleak?

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak deialdi bat plazaratuko du urtean behin lehenengo hiru urteetako ikasgai guztiak gaindituta dituzten eta prestakuntza ibilbide hori egin nahi duten ikasleen artean. Enpresek ibilbide dualean diren ikasleentzako egonaldi proposamenak egingo dizkiete fakultateei. Proposamen horiek ikasleei jakinaraziko zaizkie egonaldietarako hautagaitzak aurkez ditzaten. **Enpresek aukeratuko dute beraiek proposaturiko egonaldira aurkeztutako hautagaien artean zer ikasle onartu.**

### Nola gauzatzen da enpresaren, unibertsitatearen eta ikaslearen arteko harremana?

Unibertsitateak oinarrizko lankidetza hitzarmen bat ezarriko du ikasketa dualen ibilbidea onartzen duen enpresarekin. Bestalde, enpresaren eta ikaslearen arteko harremana **lan kontratu** baten bidez ezartzen da, edo **ordainsaria eta gizarte segurantza eskaintzen dituen praktika hitzarmen** baten bidez. Ordainsaria gutxienez izango da enpresan ematen duen egonaldiaren denborari dagokion parte proportzionalaren baliokidea lanbide arteko gutxieneko soldatarekiko.

### Nola ebaluatzen dira ikasleek ikasitakoak?

Ikaslearen ikasketa tutorea **bi aldiz** bilduko da enpresaren egoitzan enpresako begiralearekin Prestakuntza Planean aurreikusitako ikasketa helburuen betetze maila ebaluatzeko.

### Nola gauzatu zure enpresan egonaldi bat egiteko proposamena?

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateari zuzenduta:
Angel Elías (dekanoa), telefono zenbakia: 946 013 092, helbide elektronikoa: angel.elias@ehu.eus
Isabel Vázquez (Praktiketako dekanordea), telefono zenbakia: 946 013 096, helbide elektronikoa: isabel.vazquez@ehu.eus